Denboraz eta zoriontasunaz

Eneko Barberenak, idatzizko hausnarketa batetik abiatuta, denboraren iragateaz eta zoriontasunaz hitz egin digu. Guk aztertuko dugu idazleak nola formulatu duen esan nahi duen hori.

Sekuentzia honetan, hau egin dezakezu:

- **Iritzi-artikulua sakon ulertu.**
- ***Zerez* deklinabide-kasuari erreparatu, eta harekin izaten diren okerrei erreparatu.**
- **Idatzizko hausnarketa bat egin, arreta berezia jarrita ideien formulazioan.**



Pixabay

Irakurri aurretik

1. Denborak aurrera etengabean

Ariketa hau etxean egin dezakezu. Hitz egin, taldeko foroan, denborari buruz; horretarako, hartu galdera hauek oinarri.

TALDEAN



Canva

- Erabiltzen duzu erlojurik eskumuturrean? Zergatik?
- Zenbat aldiz begiratzen diozu egunean?
- Bizi ahalko zinateke erlojurik gabe?
- Gaur eguneko erlojuak ordua jakiteko erabiltzen ditugu?
- Teknologiak denbora aurrezten digu ala kendu egiten digu?

BAKARKA

Irakurri bitartean

2. Bada hausnartzeko gaia

Ariketa hau etxean egin dezakezu. Irakurri hausnarketa, eta erantzun galderari hitz bakar batekin: zertaz hitz egin du paragrafo bakoitzean?

Erlojuez



Eneko Barberena

ttap

Irakurgai ederra da Joan Fuster intelektual valentziarraren *Diccionari per a ociosos* obra. Gurean, akaso, Joseba Sarrionandiak egin zuen antzeko zerbait, *Hitzen ondoeza* izenekoa.

Bertan, Fusterrek hiztegi-jolas bat planteatzen digu, bere erudizioaren hamarren bat erakusteko. "Erloju" hitzaren atalean aipatzen du ziur asko gizakion inoizko iraultzarik handienetakoa ekarri zuela erlojua batek soinean eramateak. Iraganeko gizakientzat, denboraren iragateak ez zuen berehalakotasun izaerarik, ez zen hain xehe ezagutzen. Ziklo kosmikoen arabera sentitzen omen zen denbora, uzten erritmoan eta animalien sabelaldietan.

Denbora, orduan, magma ilun bat zen Fusterren hitzetan, antzemanezina, isurpen itzalikoa. Gaur egun, kontrara, erlojuak denbora minutu eta segundotan itzulita eskaintzen digu, ulertezina den denbora baten frakzio gisa. Eskumuturrean daramagu bizitzaren ziurgabetasunaren eta heriotzaren fatalitatearen adierazle elegantea.

Akaso, aipatu dudan horregatik da, edo Jainkoa hil izanagatik, edota kontsumo gizartearen eta turbokapitalismoaren ezaugarriengatik. Kontua da gero eta inkesta gehiagotan irakurtzen dudala zoriontasunik eza nabaria dugula mendebaldeko gizarteetan. Ez naiz soziologoa, idazle xume bat baizik, eta ez naiz ausartzen esatera den gure pobretze material gero eta agerikoagatik, bizi dugun hutsune espiritualarengatik, gure bikote edo familia ereduek bizi duten transformazioagatik. Eta are gutxiago dakit zergatik ez dugun zoriontasunaren aldagaia gure eztabaiden ekuaziora inoiz ekartzen. Noiz galdetu dizuete ea zoriontsuak zareten? Noiz galdetu diozue hori zeuen buruari?

Fusterrek ez zituen ezagutu gaur egungo kirol erloju modernoak. Haiek ez digute hitz egiten denboraren fatalitateaz, ez digute adierazten zein garrantzitsua den momentua bizitzea. Gorputza da orain ekarri duguna zifra eta neurrietara, zenbat taupada minutuko, tentsioa eta horrelako kontuak. Lehen medikuen jakituria zena, orain populuaren esku. Baina zertarako? Zer egingo dugu jakituria horrekin guztiarekin?

(moldatua)

1. .....; 2. .....; 3. .....; 4. .....; 5. Teknologiaz

Erantzun zuzenak 7. orrialdean daude, baina itxaron 4. jarduera egin arte haiei begiratzeko.

BAKARKA

3. Sakon ulertu

Irakurri berriz testua, eta erabaki hurrengo baieztapen hauek testuan zuzenean agertzen diren, agertzen ez diren, edo testutik ondoriozta daitezkeen.


BAIEZTAPENA	TESTUAK DIO	ONDORIOZTA DAITEKE	TESTUAK EZ DIO
1.- Erlojua asmatzeak gizakiaren denboraren pertzepzioa aldatu zuen.	✓		
2.- Iraganeko gizakiek denbora naturaren zikloekin lotzen zuten.			
3.- Gaur egungo gizartean, jendea ez da lehen bezain zoriontsua.			
4.- Egileak badaki zerk eragiten duen zoriontasun falta.			
5.- Zoriontasuna ez da maiz agertzen eztabaida publikoetan.			
6.- Erlojuak heriotzaren kontzientzia gogorarazten digu.			
7.- Kirol-erloju modernoek gorputzaren funtzionamenduari buruzko informazioa ematen dute.			
8.- Medikuek gero eta garrantzi gutxiago dute.			
9.- Informazio gehiago izateak ez du zertan bizitza hobea bermatu.			

Hurrengo eskolan elkartzen zaretenean, alderatu erantzunak ikaskideren batekin. Egiaztatu erantzun zuzenak 7. orrialdean.


TALDEAN

Binaka, zabaldu zeuek aurreko ariketa; alegia, idatzi post-itetan testuari buruzko beste hiru baieztapen.


A.- Idatzi baieztapen bat testuan esaten den zerbait zuzenean adieraziko duena, beste era batera formulatuta.



B.- Idatzi baieztapen bat, testuan esaten den zerbait iradokiko duena.



C.- Idatzi baieztapen bat testuan esaten ez den zerbait adieraziko duena, baina harekin nolabaiteko lotura izango duena.



Itsatsi post-itak ikasgelako hormetan, inolako ordenarik gabe. Irakurri beste bikoteen baieztapenak, eta jaso A, B eta C multzoetako baieztapenak. Komentatu, talde handian, zein baieztapenek eman dizuen arreta, zeinek eragiten duen zalantza...

Irakurri ondoren

TALDEAN

4. *Zerez* kasuaz

Aztertu izarretan jasotakoak eta esan, zuen ustez, zein den forma plurala eta zergatik.

Joan Fusterren hitzetaz

Kirol-erloju modernoez

Hiztegi-jolasetaz

Ziklo kosmikoez

Zein da *Zerez/Zertaz* deklinabide-kasuaren pluralaren atzizkia?	***-ez***	***-etaz***

Erantzun zuzenak 7. orrialdean daude.

ZEREZ/ZERTAZ

Deklinabide-kasu hori asko eta asko erabiltzen dugu euskaraz; besteak beste, hauek adierazteko: instrumentaltasuna, materia, modua, lekua, gaia... Hauek dira hartzen dituen atzizkiak:

Singularra	Plurala	Mugagabea
-az	***-ez***	***-(e)z*** ***-(e)taz***

Kasu honen plurala eta mugagabea deklinatzean, ordea, ohikoa da okerreko atzizkiak erabiltzea; izan ere, beste kasu batzuekiko analogiaz-edo, *-ETAZ* atzizkia ematen da gero eta sarriago. Azter ditzagun *kale* hitzaren plurala eta mugagabea, hainbat kasutan.

Bilboko kaleETAN ibili naiz. Bilboko kaleETARA joan naiz...
Bilkoko hainbat kaleTAN ibili naiz. Bilboko hainbat kaleTARA joan naiz...

Baina:

*Bilboko kaleEZ ari gara. *Bilboko kaleETAZ ari gara*
*Bilboko hainbat kaleZ ari gara. *Bilboko hainbat kaleTAZ ari gara*

Mugagabeak, baina, badu ñabardurarik. Erabiltzen da, bai, *-(e)taz* atzizkia, baina oso kasu gutxitan:

- Galdetzaileak eta eratorriak: *NorTAZ ari zara?*
- Erakusleak: *Pertsona horrETAZ ari naiz*
- Pertsona-izenordainak: *ZuTAZ ez, behintzat*

Deklinabide-kasu honek badu azken berezitasun bat: diptongoa duten silaba bakarreko hitzek (*gau, jai, dei...*) *-ez* atzizkia hartzen dute mugagabean: *hainbat gauez / hainbat *gauz; hainbat deiez / hainbat *deiz...*

Egin aukera zuzena.

1. Artikulua Joan Fusterren HITZEZ / HITZETAZ aritu da.

2. Geu ere artikulu HORREZ / HORRETAZ ari gara.

3. Artikuluak hainbat GAIZ / GAIEZ / GAIETAZ dihardu

4. Artikulua, neurri batean, GUZ / GUEZ / GUTAZ ari da.

5. Artikuluak zerbait esan du Fusterren eta Sarrionandiaren LIBURUZ / LIBURUEZ / LIBURUETAZ.

6. Zenbait GAUZAZ / GAUZEZ / GAUZATAZ ezin zara fidatu.

7. Gure GABEZIAZ / GABEZIEZ / GABEZIETAZ baliatu da.

Erantzunak 7. orrialdean daude.

5. Zerez hausnartu?

TALDEAN

Geuk ere hausnarketa bideratzeko artikulua idatziko dugu; horrez gain, lanean jarriko ditugu ikaskideak. Jarraitu proposatutako prozedurari.

1. Binaka, adostu artikuluaren izenburua; hark markatuko du, gehienbat, haren eduki tematikoa. Baldintza bakarra duzue: hitz bat izango da *zerez* deklinabide-kasuan, *Erlojuez* bezala.

.....-z

2. Zerrendatu zuen hausnarketarako ideiak. Hasieran, ohi bezala, ideiak, burutazioak... izango dira.

3. Aztertu ideiak, eta aukeratu interesgarrienak. Eman *baieztapen* formatua ideioi; alegia, egin esaldi egituratuak.

BAKARKA

4. Jarraitu bakarka; etxean ere egin dezakezu hemendik aurrerakoa. Prestatu zure idazlana, bikotekidearekin adostutako ideiak erabilita. Aukeratu horietako hainbat, eta eraman idazlanera.
   - Horietako bi zuzenean esango dituzu, baina birformulatu egin beharko dituzu; alegia, ez esan hitzez hitz.
   - Horietako beste bi iradoki besterik ez dituzu egingo; alegia, estrategiaren bat erabiliko duzu ideia horiek helarazteko.

5. Idatzi hausnarketa.

_____

_____

Bilatu beste bikotekide bat, harekin lantalde berria egiteko. Eman elkarri idazlanak eta aurreko bikotekidearekin zerrendatutako baieztapenak. Ikaskidearen idazlana irakurrita, aztertu:

- Hausnarketa irakurriko duzue, eta paragrafo bakoitzean esan beharko duzue zertaz hitz egiten duen.
- Esan idazlanarekin batera jasotako baieztapenak testuan agertzen diren edo ez diren, edo ondoriozta ote daitezkeen; era berean, zein pasartetan atzeman duzuen ere esan beharko duzue.

Itzuli idazleari lanak, eta komentatu elkarrekin ea ondo ulertu duzuen idatzitakoa. Zalantzarik badago, argitu irakaslearekin.

ERANTZUNAK

2. Bada hausnartzeko gaia

1.- liburuez; 2.- erlojuez; 3.- denboraz; 4.- zorionaz; 5.- teknologiaz.

3. Sakon ulertu

1.- Erlojua asmatzeak gizakiaren denboraren pertzepzioa aldatu zuen. **Testuak dio**. Erlojua soinean eramateak "gizakion inoizko iraultzarik handienetakoa" ekarri zuela dio.
2.- Iraganeko gizakiek denbora naturaren zikloekin lotzen zuten. **Testuak dio**. Uzten erritmoa, animalien sabelaldiak eta ziklo kosmikoak aipatzen ditu.
3.- Gaur egungo gizartean, jendea ez da lehen bezain zoriontsua. **Ondoriozta daiteke**. Ez du konparazio historiko zuzenik egiten, baina badio zoriontasun falta gero eta gehiagotan agertzen dela.
4.- Egileak badaki zerk eragiten duen zoriontasun falta. **Testuak ez dio**. Kontrakoa dio: "ez naiz ausartzen esatera...".
5.- Zoriontasuna ez da maiz agertzen eztabaida publikoetan. **Ondoriozta daiteke**. Horren inguruko galdera erretorikoa egiten du.
6.- Erlojuak heriotzaren kontzientzia gogorarazten digu. **Ondoriozta daiteke**. Ez darabil "kontzientzia" hitza, baina erlojua heriotzaren fatalitatearen adierazletzat jo du.
7.- Kirol-erloju modernoek gorputzaren funtzionamenduari buruzko informazioa ematen dute. **Testuak dio**. Taupadak, tentsioa eta bestelako datuak aipatzen ditu.
8.- Medikuek gero eta garrantzi gutxiago dute. **Testuak ez dio**. Medikuen jakintza herritarren esku ere badagoela dio, baina ez du medikuen garrantziaz hitz egiten.
9.- Informazio gehiago izateak ez du zertan bizitza hobea bermatu. **Ondoriozta daiteke**. Amaierako galdera kritikoek hori iradokitzen dute.

4. *Zerez* kasuaz

-ez bukaera dutenak dira pluralak.

1. Artikulua Joan Fusterren **HITZEZ** aritu da.
2. Geu ere artikulu **HORRETAZ** ari gara.
3. Artikuluak hainbat **GAIEZ** dihardu.
4. Artikulua, neurri batean, **GUTAZ** ari da.
5. Artikuluak zerbait esan du Fusterren eta Sarrionandiaren **LIBURUEZ**.
6. Zenbait **GAUZAZ** ezin zara fidatu.
7. Gure **GABEZIEZ** baliatu da.

HIZTEGI LAGUNGARRIA

Denboraren iragateak. Denbora pasatzeak, joateak.
Uzten erritmoan. Lurrak fruitua ematen duen erritmoan.
Animalien sabelaldietan. Animaliek kumeak dituzten aldietan.
Isurpen itzalikoa. Isilean pasatzen dena.
Taupada minutuko. Bihotzaren erritmoa adierazteko modua.